

## ANIMALIAK JAIETAN BAI ALA EZ?

### Marina

Ez da animaliekin ikuskizunik egin behar gizakien gozamenerako. Neure onetik ateratzen nau ikusteak jende ugari animalien sufrimendurekin gozaten duela. Debekatuta egon beharko lukete

### Rosa

Gure herriko jaietan, sokamuturrak arrakasta handia dauka. Nik uste dut gure kultura eta tradizioaren parte dela, eta, gainera, ez dut uste animalien sufrimendua eragiten duenik.

### Eba

Nire ustez, animaliarik hilko ez balute, ikuskizun oso politak izango lirateke, zezenketak behintzat. Kentzen badituzte... nola geratuko dira sanferminak? Festarik gabe egongo gara!

### Janire

Gai horri buruz hitz egiten den bakoitzean, polemika handia sortzen da. Betidanik ospatzen ditugu jaiegunak gizakiok animalien sufrimendurekin. TORTURA ez da gozamina.

### Kristina

Erabiltzearen aldekoa naiz, baina animaliek sufrimendua sentitu gabe; tradizioa aldatu behar bada, aldatu egiten da, eta kitto.

### Jesus

Animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunen guztiz kontra nago. Horrelako guztiek debekatuta egon beharko lukete. Animaliak izaki bizidunak dira eta ez dute zertan sufritu.

### Teresa

Niri kasu batzuetan ez zait gaizki iruditzen. Adibidez, gure herrira urtero etortzen zen animalia asko ekartzen zituen baserritar bat, eta umeei asko disfrutatzen zuten astoen gainean paseatzen, animaliak ikusten... Haur batzuek, horregatik ez balitz, ez lituzkete hainbat animalia ezagutu ere egingo.

### Soraya

Uste dut animaliak erabiltzen diren ikuskizunekin umeei erakusten dizkiegun balioak ez direla oso onak, animaliek tratu txarrak jasotzea eredu ontzat har baitezakete.

### Patricia

Indarkeriaren kontra nago; ez zait animalien sufrimendua gustatzen. Halere, zezenen ikuskizuna desagertzen bada, zezenak ere bai. Azkenean, zorionez ala zoritxarrez, diruak mugitzen du dena, dena da negozioa.

### Javi

Ikuskizunetan animaliak erabiltzearen kontra nago. Inoiz ez zaizkit gustatu animalien ekitaldiak. Ikuskizun horiek pena ematen didate beti.